

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

1-Hornitzaileak

- Gure elkarte klabeak diseinatzaileak dira eta gu izango gara, gure zapaten diseinu desberdinak aterako ditugu. Zapakoi hauek guk bezeroei saltzen dizkiegu eta diseinatzaileek etekinaren zati bat eramaten dute. Diseinatzaileek etekinaren %20 eramaten dute. Beste aldetik, zapataren takoia eraikitzen duenak etekinaren %10 eramaten du. Pertsona hori Iker Udaondo izango da.
- **Akordioa:** urtaroak aldatzen diren bakoitzean akordioa berriztatzen dugu. Gure diseinuak aldatzen dira urtaroaren arabera, hau da, neguan, udazkenean, udaberrian eta udan zapakoi bilduma berriak saltzen ditugu.
- Gure akordioak herriko dendekin dira, zapakoiak ekoizteko eta materiala eskuratzeko (ez ditugu enpresa multinazionalik sustatu nahi) elkarren artean laguntzen gara promozioak eginez. Herriko dendek ospe gehiago lor dezakete haien materialez osatutako zapakoiak salduko ditugulako.

2-Funtsezko bazkideak:

Lana horrela banatuko dugu:

Leize: Leizek gure enpresaren barruko dirua kudeatuko du, gastuak gainditu baditugun, zertan inbertitu behar den aztertu eta dauzkagun kostuak murrizteko alternatiba desberdinak bilatuko ditu.

Uma: Bezeroekiko arretan lan egingo du, haiekin hitz egingo du. Gainera, bezeroen kezkei eta zalantzei aurre egingo die eta argituko dizkie mezuen bidez webgunetik galdetzen badute.

Isabel: Webgunearen bidez produktuen eskaerak jasoko ditu, hauek antolatuko ditu eta Danielari jakinaraziko dio ze produktuen eskaera egin diren, gero Danielak biltegia antolatzeko.

Daniela: Enpresaren biltegian egingo du lan, banatzailea izango da, hau da, bezeroek eskatutako produktuak banatuko dizkie eta etxeetara egoera onenean iristeaz arduratu egingo da.

3-Baliabideak:

- Guk denda bat edukiko dugunez, dendan biltegi bat egongo da. Biltegi horretan sasoitik kanpo dauden zapakoiak gordeko ditugu. Urtaro bakoitzari dagokion zapakoi taldeak kokatuko ditugu gure dendan.

Garrantzi handia emango diogu bezeroekiko edukiko dugun errespetuzko harremanari. Guk nahi duguna da, gure bezeroak guztiz pozik egotea erosten dutenarekin eta horrela izango ez balitz, gurekin komunikatzea eta konponbide bat ateratzea.